

CARITASEN KANPAINA

2020ko MARTXOAREN 29a

GARIZUMA ALDIKO 5. DOMEKA (A)

«ERDU»

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✠ Liturgi lagungarriok liturgiako taldearen esku itzi.
- ✠ Aldez aurretik prestatu izan doguz, horregaitik kanpaina egiten dan sasoian Jaungoikoaren Herriaren otoitzean aitatzea komeni dan gertaeraren bat egon daiteke.
- ✠ Ezinbestekoa da liturgi lagungarriakaz batera doazan materialak irakurtea kanpainaren sena ondo ulertzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekan gagoz. Gaurko ospakizunean, Lazaroren biztueraren pasarte ardatz, biziaz berba egingo jaku eta bizia eta berbikundea bizitzera deituko. Jesus heriotza baino indartsuagoa da; bizia emonez, eta ugari emon be, heltzen da bere bizitzaren azkenera. Izan be, Kristo biztuera eta bizia da, bizi ugaria eta, aldi berean, gure pekatu eta heriotzazko hilotzatik atarateko deia be.

Caritasek dei egiten deusku domeka honetan, duintasuna, sormena, partaidetza eta alkartasuna ezaugarri nagusitzat izango dituan lana sustatu daigun. Lan inklusiboa, barneratzailea dogu helburu, hau da, baldintza zuzenetan garatzen dan lan-jarduera, eremu duin eta zuzenean gizarteratzea ahalbideratzen dauan lan-jarduera.

Emon deiogun hasiera Hitzaren eta Eukaristiaren indarra emongo deuskun ospakizunari.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

29 de MARZO de 2020

5º DOMINGO DE CUARESMA (A)

«TE INVITO»

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✠ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✠ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✠ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma. Toda la celebración de hoy, con el relato evangélico de la resurrección de Lázaro, nos va a hablar e invitar a la vida y a la fe en la resurrección. Jesús es más fuerte que la muerte; termina su vida dando vida y vida en plenitud. Es todo un signo de que Cristo es la resurrección y la vida en plenitud, pero también una llamada a salir de nuestros sepulcros de pecado y de muerte.

Cáritas se hace presente entre nosotros de un modo especial este domingo y nos invita a ser una comunidad que fomenta el empleo digno, creativo, participativo y solidario. Ponemos el acento en el empleo inclusivo que es aquella actividad laboral a la que pueden acceder todas las personas que quieran hacerlo, que se desarrolla en unas condiciones justas y que permite un proceso de inclusión en un entorno laboral digno y equitativo.

Iniciamos la celebración en la que recibiremos la fuerza del pan de la Palabra y de la Eucaristía.





SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea, zuekin.

DAMU OTOITZA

Jesus Jaunak dei egiten deusku, bihotz-barritze eta parkamenaren bitartez, heriotzatik Jainkoaren Bizira igaro gaitez. Apaltasunez, eskatu daigun gure pekatuen parkamena. (Isilunea)

Autortzen deutsat... Jainko Ahalguztiduna... Erruki, Jauna...

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (EZ 37,12-14)

Bere profetaren bidez, Jainko Jaunak itxaropenez betetako hitzak esaten deutsez Babilonian erbesteratuta eta etsita dagozanei. Bere herria bizira, gurasoen lurrera eroango dau barriro be.

OHARRA 2 IRAKURGAIARI (ERM 8,8-11)

Espirituaren doeak erabat aldatzen dau fededunen izaera. Eurentzat Kristo izango da Pazkoa, bizirako sarrera.

EBANJELIOA

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Apaltasunez, gizadi osoaren beharrizanak aurkeztuko deusguz Biziaren Jainkoari.

1. Eleizaren alde. Jakinarazo daijala hitzez eta egitez, Jainkoak gura dauan eta eskaintzen deuskun bizia. Eskatu deiogun Jaunari.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Jesucristo, el Señor de la Vida, estén con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la Vida de Dios. Con sencillez y humildad, pidamos perdón por nuestros pecados. (Instantes de silencio)

Yo confieso... Dios todopoderoso... Señor, ten piedad...

MONICIÓN 1ª LECTURA (EZ 37,12-14)

Por medio de su profeta, el Señor Dios dirige palabras de esperanza a los deportados sin esperanza en Babilonia. Él hará que su pueblo vuelva a la vida, lo devolverá a la tierra de sus padres.

MONICIÓN 2ª LECTURA (RM 8,8-11)

El don del Espíritu cambia radicalmente la condición de los creyentes. Para ellos será Cristo Pascua de resurrección, entrada en la vida.

EVANGELIO

ORACIÓN UNIVERSAL

Con actitud humilde, le presentamos al Dios de la Vida las necesidades de toda la humanidad.

1. Para que la Iglesia transmita, con sus gestos y palabras, la vida que Dios nos ofrece y desea. Roguemos al Señor.



2. Agintarien alde. Guztion onerako dan eta gizon-emakumeen esanetara dagoan bestelako eredu proposatzen dabeneko ekonomia solidarioaren metodoak garatu daitezkan. Eskatu deiogun Jaunari.
3. Caritasen alde. Ekonomia gizatasunez beteteko eta ondasunen kristau banaketa hedatzeko bideen inguruko hausnarketa sustatu daian. Eskatu deiogun Jaunari.
4. Gu guztion alde. Erreinuaren zeinu bizi izan gaitezkan eta bizi eta bakea zabaldu daiguzkan inguruan. Eskatu deiogun Jaunari.

Aita bizi-emoilea, begiratu errukiz gaur heriotzaren ilunpetan bizi garanoi eta, bizi dakarren zure Espirituaren eraginez, barritu eta aldatu gure bizitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Diru horren onuradunen izenean, eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

Azkenaldian lanaren nagusitasunaren inguruan eztabaidan jardun bada be, gaur gaurkoz funtsezkotzat joteneko dogu gizon-emakumeen bizitzan. Alderdi pertsonal eta sozial eztabaia daezina dau eta, gainera, familia balioa da, era esanguratsuan baldintzatzen dau familiako kide guztien errealdia.

Lan inklusiboaz, barnerratzaileaz dihardugu, hau da, baldintza zuzenetan garatzen dan lan-jardueraz, eremu duin eta zuzenean gizarteratzea ahalbideratzen dauan lan-jardueraz. Kasu askotan, aldaketa sakona eskatzen dau orain arte funtzionatu eta onartu izan dan lan-merkatuan.

2. Para que los responsables en los gobiernos de los pueblos se empeñen en favorecer métodos de economía solidaria que proponen y trabajan por un modelo distinto, al servicio del bien común y que están al servicio de las personas. Roguemos al Señor.

3. Para que Cáritas no deje de invitar a reflexionar sobre cómo humanizar la economía y participar de la comunicación cristiana de bienes. Roguemos al Señor.

4. Para que nosotros seamos signos vivos del Reino y comuniquemos vida y paz en nuestro entorno. Roguemos al Señor.

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción vivificadora de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas. Por Jesucristo, nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad.

EN SILENCO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Aunque últimamente se está cuestionando la centralidad del empleo, hoy por hoy lo consideramos fundamental en el proceso vital de las personas. Tiene una dimensión personal y social de primer orden y además es un valor familiar, determina de forma significativa la realidad de todos los componentes de la misma.

Y hablamos de empleo inclusivo, es decir, aquella actividad laboral a la que pueden acceder todas las personas que quieran hacerlo, que se desarrolla en unas condiciones justas y que permite un proceso de inclusión en un entorno laboral digno y equitativo. En muchos casos, supone un cambio profundo en el mercado de trabajo tal como ha funcionado y se ha entendido hasta el momento.

Bidezkoa da pertsonen prozesuetan lanaren balioaren aldeko apustua eta gure inguruko familia askok jasaten dauan langabeziaren zoritxarra agertzera emotea.

Gaur egungo gizarte eta ekonomia testuinguruan, langabeziak, gaur egun, familia osoak pobretasunean bizitzera kondenatzen ditu.

Eta hemen zentzun betea dau Eleizaren Doktrina Sozialetik egiten dan azterketa honek: «Behartsuak, kasu askotan, giza lanaren duintasunaren bortxaketaren emaitza dira, edo euren aukerak mugatu egiten diralako (lanik eza, azpi-lanak...), edo lanaren arloan dagokizan eskubideak, batez be, soldata zuzena jasoteko, langilearen eta bere familiaren segurtasuna, indargabetu egiten diralako» (Caritas in Veritate, 63. zenb.).

Bihotzez, 71. zenb.

Procede poner de manifiesto la apuesta por el valor del empleo en los procesos de las personas y el drama del paro para muchas familias de nuestro entorno.

En el contexto social y económico actual, el desempleo se erige en estos momentos en causa que aboca a familias enteras a vivir en pobreza.

Y aquí cobra pleno sentido el siguiente análisis desde la doctrina social de la Iglesia: «Los pobres son en muchos casos el resultado de la violación de la dignidad del trabajo humano, bien porque se limitan sus posibilidades (desocupación, subocupación), bien porque se devalúan los derechos que fluyen del mismo, especialmente el derecho al justo salario, a la seguridad de la persona del trabajador y de su familia» (Caritas in Veritate, n. 63).

Bihotzez, n. 71



caritasbi.org



caritasbi.org


Caritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

